

# BIZTANLERIA

## DEFINIZIOAK:

- **BIZTANLERIA:** Herri, autonomia-erkidego, herrialde eta bestelakoetan bizi den pertsona multzoa da.
- **UDAL ERROLDA:** Herritarren erregistroa da. Udaletxe (ayuntamiento) bakoitzak berea egiten du eta urtero berritzen da. Erroldan, herriko biztanle-kopurua, egoera ekonomikoa... biltzen dira.
- **ZENTSUA:** herrialde batek une jakin batean dituen biztanle guztien erregistroa da. Zentsuan ere jasotzen dira biztanleriaren eta egoera ekonomiko eta sozialaren inguruko datuak, baina udal-erroldan baino gehiago; adibidez: sexua, adina, egoera zibila, erabiltzen duten hizkuntza, hezkuntza-maila, ezaugarri ekonomikoak, etxebizitza mota, etab. Espainian hamar urtean behin egiten da, eta, 1981etik, 1 zenbakiaz bukatutako urte guztietan.
- **ERREGISTRO ZIBILA:** herri bateko jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak idazteko erabiltzen da.

### 1. ARIKETA: Aukeratu erantzun zuzena.

- Herri, autonomia-erkidego edo nazio bateko biztanleria multzoa da.

| Biztanleria | Errolda | Zentsua |
|-------------|---------|---------|
|-------------|---------|---------|

- Udaletxe bakoitzak urtero egiten du herri bateko biztanle-kopurua kalkulatzeko.

| Biztanleria | Errolda | Zentsua |
|-------------|---------|---------|
|-------------|---------|---------|

- Hamar urtetik behin egiten da nazio edo herrialde bateko biztanle-kopurua kalkulatzeko.

| Biztanleria | Errolda | Zentsua |
|-------------|---------|---------|
|-------------|---------|---------|

- Herrialde edo nazio bateko biztanleria kopurua, sexua, adina, egoera zibila (ezkontuta edo ezkondu gabe dagoen), erabiltzen den hizkuntza, hezkuntza maila... jasotzen dira.

| Biztanleria | Errolda | Zentsua |
|-------------|---------|---------|
|-------------|---------|---------|

**2. ARIKETA:** Aurkitu informazioa interneten eta erantzun galderak. Informazioa aurkitzeko garaian jarraitu pistak. (Pistak azpimarratuta dituzue interneten informazioa a)

**EUSTAT:** Euskal Estatistika Erakundea da eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuak jasotzeaz arduratzen da.

- EUSTAT-en arabera 2019. urtean Gasteizen zenbat pertsona bizi ziren (biztanleria)?
- EUSTAT-en arabera 2016. urtean ehuneko (%) zenbat pertsona ziren euskaldunak Gasteizen?

**INE:** Instituto Nacional de Estadística da eta Espainiako zentsuak egiteaz arduratzen da.

- INE-ren datuen arabera 2011. urtean eginiko zentsuaren arabera zein zen Espainiako biztanleria?

## JAIOTZA-TASA ETA HILKORTASUN-TASA

- **JAIOTZA-TASA:** leku eta garai jakin batean jaiotzen den pertsona-kopurua da.
- **HILKORTASUN-TASA:** leku eta garai jakin batean hiltzen den pertsona-kopurua da.

**Berezko hazkunde positiboa:** Heriotza baino jaiotza gehiago baldin badaude.

**Berezko hazkunde negatiboa:** Jaiotza baino heriotza gehiago baldin badaude.

**3. ARIKETA:** Euskal Autonomoa Erkidegoan (E.A.E.-n) 2016. urtean 18.220 haur jaio ziren eta 21.223 hil. Hazkundera positiboa ala negatiboa da?

a) Hazkundera positiboa da pertsona gehiago jaio direlako.

b) Hazkundera negatiboa da pertsona gehiago hil direlako.

# MIGRANTEAK

IKUSI BIDEO HAU:

MIGRANTEAK: EMIGRATZAILE ETA INMIGRATZAILEAK DIRA.

**4. ARIKETA:** Bete hutsuneak:

- Leku eta garai jakin batean izandako jaiotza-kopurua eta heriotza-kopurua \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ dira.
- \_\_\_\_\_ pertsonak leku batetik beste batera bizitzera joatea da.
- \_\_\_\_\_ pertsonak leku batera bizitzera etortzea da.

**5. ARIKETA:** MUNDUAN 60.000.000 ERREFUXIATU BAINO GEHIAGO DAUDE!!!

- Entzun lasai-lasai abesti zoragarri hau. Ea gustatzen zaizuen!